

Herioa

tzat edo heresiaren hurbilekotzat jo dituzten irakatsi batzuk, gerora argi ikusi da fede-arau on eta zuzenarekin erabat ados zeudela. Hortixe etorri da, hain zuzen, honako esaera moduko hau, ausarta baina ez guztiz okerra: "Agudoegi aldarrikaturiko egia besterik ez da heresia". Ez dira okerrago ibili beste hau gaineratu izan dutenak: Edozein egia, beraren inguruan biraka eta biraka dabilenean, absolutetsi egiten da eta heresia bihurtzen, beraz, horrela bestelako egia baztertzeko baita ditu.

Dena dela, "heresia" askoren, antzina-koen nahiz modernoek, historia gorabeheratsuan erasan handia ukan dute giza grina txarrekin eta interes politikoekin ere bai.

Ik. Apostasia; Zisma; Irakasbidea; Dogma; Definizio dogmatikoa.

Felix Placer Ugarte
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

Herioa

Heriotzaren pertsonifikazioa da, eskeleto gisa irudikatzen dutena, sarritan sega bizkarrean duela. Bizkaieraz balbe esaten da.

Herioaren dantza

Erdi Aroko pinturatan eta antzerkitan askotan irudikatzen zuten gai ezaguna da. Herioaren irudiak adin eta egoera sozial ezberdineko lagunak bilduz, dantza-taldearen tankeran eramaten ditu hilobira.

Horrelako pinturazko irudikapena berriki aurkitua dute Xabierreko gazteluko kaperatxo batetan.

Ik. Heriotza.

Heriotza

Herri eta kultura guztietan erdi-erdiko lekua eduki ohi du heriotzak. Hamaika *mitologia badira heriotzaren inguruan. Euskal Herrian hainbat dira sinesteak, ihardunak eta *erritoak heriotzaren inguruan, ikuskerak antropologiko sakonaren ispilu direnak.

Aurreritzi ezberdinetatik ukitu du gai hori antropologia modernoak; eta batez ere, gizakiaren eta horren *gorputz-arimen berezko harremanaren ikuspegi berritik, non giza-banakoa gorputz-izpirituzko osotasun banantzeina eta komunikakorra baita. Bibliako soma (=gorputza), psike (=arima) eta pneuma (=izpiritua) kontzeptuekin loturik dago ikuspegi moderno hura, hiru kontzeptu horiek, ñabardura ezberdinez bada ere, gizaki osoa adierazten dutenez.

Gauza horrela ikustera, heriotza ez da arimaren eta gorputzaren banantze hutsa.

Gizon-emakumeak osorik hiltzen dira, beren materiazko-izpirituzko banantzeintasan horretan, bizi ere osotasunean bizi diren bezala. Bizitzaren denborazko bilakaeraren amaia da heriotza. Egokiagoa da, hala ere, hiltzeaz mintzatzea eta ez heriotzaz, horrela hobeto adierazten baita heriotzaren eta bizitzaren arteko lotura: Bizitza legez, heriotza ere etengabeko bilakaera da, eta bizitzako aldiune bakoitza da nolabait azkena.

Gure lurreko bizitza, bai denboran eta bai espazioan *libertatearen mugatzea bere baitan daramana, inoren eskuetan uztea da heriotza. Giza libertatea garbitu, gardendu eta osorik komunikakor izango bada, beharrezkoa da hiltzea. Heriotzatik igaroz jartzen dira gizon-emakumeak zer sakonarekin elkartasun osoenean eta ustegabekoenean, beren espaziotzko eta denborazko mugak gainditu ondoren. Bizitzara deituak daudenez, heriotzara ere deituak daude gizon-emakumeak. Azkenburuko jaiotza da heriotza.

Hala ere, giza heriotza ez da bizitzako gertaera aldenuezin hutsa. Erabakia da, librea eta behin-betikoa, bizitzan zehar egindako hautapen ugarien fruitua eta ondorioa. Une horretantxe ebazten dute gizon-emakumeek Bestearenganako elkartasunezko irekiera ala osotasunarekiko behin-betiko itxiera.

Erabaki horietako bata *zerua eta bestea *ifernua deitzen ditu Bibliak. Aurrenak elkartasunezko *zoriona eta mugagabeko askatasuna daramatza bere baitan; bigarrenak, aldiz, norbanako bakartu eta porrokatuaren, bere bakartasunean suntsitutakoaren erabateko alferrespina.

Heriotzak badu bere mingarritasun eta dramatikotasuna, areago, bere larrimina ere. Kristau-errebelazioaren arabera, *bekatuari zor zaio gizon-emakumeen behin-betiko aldiu horren izugarritasuna. Bekatuzko itxieraz gizon-emakumeak Jainkoagandik aldentzean, beren *esperantza behin-betiko eta osotik aldentzen dira. Aldentze horrek garamatza larriminezko hutsune gisa nabaritzera heriotza, ezerezean, ez-izatean, erabateko galbidean suntsitzeko zorian ipiniko gaituelakoan. Horra Jesus ifernuetara jaitsi zelako perpausaren adiera ezkutua: hau da, bekatuaren ondorio den heriotzak bere baitan daraman leize-hutsunea nabari izan zuela (Gn 3; Erm 5,12).

Jesusenganako fedetik abiatuz, *piztueran adierazi eta gauzatzen den *esperantza gorenaren aldiunea da batez ere heriotza.

Ik. Bizia; Larritasuna; Gerorengoak.

Felix Placer Ugarte
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi